

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

307/2026 Erabakia, maiatzaren 19koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Gazteriaren Foru Erakundeko 2026ko enplegu publikoaren eskaintzari

Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legeak, abenduaren 1ekoa, 52.1 artikuluan xedatutakoaren ariora, "Aurrekontu-esleipena duten postuak betetzeko langileak behar direnean, postuok ezin direlako bete administrazio bakoitzean dauden giza baliabideekin, enplegu publikoaren eskaintza egin beharko dute euskal administrazio publikoek eta haien mendeko entitateek, edo antzeko beste edozein kudeaketa-tresna erabili, langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren."

Horrela, Gazteriaren Foru Erakundeak, Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoak, aldi baterako eta bitarteko enplegua finkatzeko prozesua garatu nahi du, dauden lanpostuak gehitu gabe. Horretarako, aurrekontu zuzkidura dutenak eta lanpostuen zerrendan daudenak aterako ditu eskaintzara.

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2026rako luzatuak (aurrerantzean, 31/2022 Legea), langile berriak sartzeko mugak eta baldintzak ezartzen ditu, eta aukera ematen du, aipatutako mugen barruan eta, nolahi ere, gastu-aurrekontuen I. kapituluko aurrekontu-baliabideak errespetatuz, sektore eta administrazio jakin batzuetan enplegu publikoaren eskaintza deitzeko.

31/2022 Legearen 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, langileak birjartzeko tasa kalkulatzeko, finkatutako gehieneko tasaren ehuneko honako hauen arteko aldeari aplikatuko zaio: aurreko aurrekontu-ekitaldian sektore, eremu, kidego edo kategoria bakoitzean zerbitzuak emateari utzi dioten langile finkoen kopurua, batetik, eta ekitaldi horretan, edozein arrazoiengatik, horietan sartu diren langile finkoen kopurua, bestetik, enplegu publikoko eskaintzetatik datozenak edo lanpostuak erreserbatzea ez dakarten egoeretatik itzuli direnak izan ezik.

31/2022 Legean xedatutakoa aplikatuz, oro har, ehuneko 110eko birjarpen-tasa dagokio 2025eko ekitaldian plantillan izandako aldaketei. Urte horretan, guztira 5 plaza hutsik geratu ziren erretiroaren ondorioz:

— Txaluparia	150143
— Aterpetxeko Zuzendaria	060110
— Gazteriako Administrazioa	220274
— Garbiketako eta zerbitzuetako Espezialista	110429 eta 110736

Lanpostu huts horiez gain, 2024an beste bi lanpostu huts sortu ziren, eta 2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu ezenez, erregulaziotik kanpo geratu dira:

— Aterpetxeko Zuzendaria	060439
— Uretako Kirol Jardueretan Espezialista	160145

Horrela, 2025ean hutsik zeuden 5 plazek, ehuneko 110eko berrezarpen-tasa orokorrari esker, 2026ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartu beharreko 6 plaza sortzen dituzte, goiko zenbaki osora biribilduta.

Hala, 2025ean sortutako lanpostu hutsez gain, beste lanpostu bat gehiago sartuko da aurreko enplegu-eskaintzetan ez sartzeagatik erregularizatu gabe geratu direnen artean. Lanpostu hori 060439 izatea erabaki da, Zuhatzako aterpetxeko zuzendari-lanpostuari dagokiona.

Hori guztia kontuan izanik, Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaritza-kudeatzaileak lan eskaintzarako proposamen bat egin du lanpostu zerrendaren arabera. Proposamen horretan sartuko dira aurrekontuan zuzkidura duten plaza hutsak, baldin eta ezin atzeratuzkoa jotzen bada haiek betetzea zerbitzu publikoak ondo ibiltzeko, lan eskaintzan sartuz betetzekoak diren plazak. Erabaki hori erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluak aztertu zuen eta erabaki zuen Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea.

Gazteriaren Foru Erakundeko langileen ordezkariekin negoziatu ondoren.

Kontuhartzaitza Zerbitzuari aginduzko txostena eskatu zaio.

Horregatik, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak eta Kultura eta Kirol Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzura dagoen langileen plazen 2026rako enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Plaza erabaki honen eranskinean jasota dago.

Bigarrena. Eranskin horretan zehazten denez, lanpostuek derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna dute, eta eskakizun hori betetzea nahitaezkoa izango da lanpostua eskuratu ahal izateko.

Hirugarrena. Sartzeko sistema orokorra oposizio-lehiaketa izango da.

Laugarrena. Eskaintzako plaza eskuratzeko prozedura eta betekizunak kasuan kasuko deialdian finkatuko dira, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak onartuko duen oinarrien arabera.

Bostgarrena. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenak, 70.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, hautaketa prozesuak gehienez ere hiru urteko epearen barruan deitu beharko dira, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Seigarrena. Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn, eta honen laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN



ERANSKINA / ANEXO

ARLOA AREA	Unitatea Unidad	LANPOSTUA PUESTO	L.K. C.P.	K.E. R.C	D.E. R.D	T.T. G.T.	H.E. P.L.	D.D. F.P.	LEGEZKO JUSTIFIKAZIOA JUSTIFICACIÓN LEGAL
2 Egoitzak / Residencias	30.40000 Zuhatzako Aterpetxea Albergue de Zuhatza	Aterpetxeko Zuzendaria / Director/a de Albergue	060439	IL/L	O/N	A/A 2	3	2012/12/31	2026ko berraztertze tasa Tasa de reposición 2026
		Txaluparia / Barquero	150143	D	O/N	C/C1	2	1994/12/31	
	30.10000 Barriako aterpetxea Albergue de Barría	Aterpetxeko Zuzendaria / Director/a de albergue	060110	IL/L	O/N	A/A 2	3	2012/12/31	
	30.20000 Espejoko aterpetxea / Albergue de Espejo	Garbiketako eta zerbitzuetako Especialista Especialista de Limpieza y Servicios	110429	IL/L	O/N	C/C2	1	2021/12/31	
			110736	IL/L	O/N	C/C2	1	2021/12/31	
40. Zerbitzu Orokorrak Servicios Generales		Gazteriako Administraria Administrativo de Juventud	220274	IL/L	O/N	C/C1	2	1994/12/31	

Laburdurak / Abreviaturas:

L.K./C.P.: Lanpostuare Kodea / Código de Plaza

K.E./R.C.: Kontratazio Erregimena / Régimen de Contratación:

- IL/L: Lan-kontratu Finkoa / Laboral Fijo Continuo

- D: Aldizkako Lan-kontratu Finkoa / Laboral Fijo Discontinuo

D.E./R.D.: Dedicazio Erregimena / Régimen de Dedicación

- O/N: Ohikoa / Normal

T.T./G.T.: Titulazio Taldea / Grupo de Titulación.

H.E./P.L.: Hizkuntza Eskakizuna / Perfil lingüístico.

D.D./F.P.: Derrigortasun Data / Fecha de Preceptividad

Egitaraziak, baldin Direction de concertación
<https://e.s.araba.eus/wps/portal/ConsultaCoe>Egitaraziaren kodea Código de verificación
2M2p-A37c-1k18-HnuG